



IRUÑEA-TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CARITASEN ESTATUTUAK

2026ko otsaila

<i>I. KAPITULUA</i>	IZAERA	3
<i>II. KAPITULUA</i>	XEDEAK	5
<i>III. KAPITULUA</i>	ELIZBARRUTIKO CARITASEN LEHENDAKARITZA	7
<i>IV. KAPITULUA</i>	KIDE ANITZEKO GOBERNU-ORGANOAK	8
<i>V. KAPITULUA</i>	PERTSONA BAKARREKO ZUZENDARITZA- ORGANOAK	15
<i>VI. KAPITULUA</i>	ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA ONDAREA	19
<i>VII. KAPITULUA</i>	CARITASEN LAGUNTZEN DUTEN PERTSONAK	24
<i>VIII. KAPITULUA</i>	CARITAS ARTXIDIOZESIAN	24
<i>IX. KAPITULUA</i>	ESTATUTUAK ALDATZEA ETA ELIZBARRUTIKO CARITAS DEUSEZTATZEA	26
<i>XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA</i>	IZENDAPENEN ERREGIMEN IRAGANKORRA	27

IRUÑEA-TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CARITASEN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA. IZAERA

1. artikulua- Izaera, norainokoa eta iraupena

1. Iruñea-Tuterako Elizbarrutiko Caritas (hemendik aurrera, Elizbarrutiko Caritas) elizbarrutiko pastoraltzaren parte da, eta artzapezpikuari laguntzen dio bere karitate-zerbitzuan.

Elizbarrutiko Caritasek honela gauzatzen du zeregin hori: kalteberatasuneko, pobrezia eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta emanda; justizia, giza garapen integrala eta gizarteratzea sustatuta; karitate- eta gizarte-ekintza bultzatuta eta lagunduta; eta larrialdi humanitarioei eta garapenerako nazioarteko lankidetzari erantzunda. Hori guztia, Ebanjelioaren, Elizaren Jakinbide Sozialaren eta Benedikto XVI.ak *motu proprio* "Karitatearen zerbitzua" jaulkitako (2012) argitan.

2. Elizbarrutiko Caritasen lurralde-esparrua Iruñeko eta Tuterako artxidiozesia da (hemendik aurrera, artxidiozesia), jarduerak lurralde horretan gauzatzeko. Hala ere, bere norainokoa beste herrialde batzuetara iristen da, nazioarteko lankidetzaren bidez.

3. Elizbarrutiko Caritas Elizaren korporazio publiko ez-kolegiala da (Zuzenbide Kanonikoko Kodearen 115.&2 kanona, hemendik aurrera, CIC, *Codex Iuris Canonici*), artxidiozesian karitate- eta gizarte-ekintza sustatu, orientatu, gauzatu eta koordinatzeko.

4. Elizbarrutiko Caritasen iraupena, berez, mugagabea da denboran (CICen 120. kanona). Estatutu hauetan jasotako moduan baino ezin izango da deuseztatu.

2. artikulua- Nortasuna

Elizbarrutiko Caritas erlijio-erakunde katolikoa da. Nortasun juridiko kanonikoa du, 1968ko urtarrilaren 11ko Sortze Kanonikoko Dekretuak emana, eta modu zibilean aitortuta dago, Erlijio Erakundeen Erregistroan inskribatu zutelako, 000845 zenbakiarekin, 1981eko martxoaren 5ean.

3. artikulua- Autonomia eta ordezkaritza

1. Elizbarrutiko Caritasek ekimen librearekin eta bere erantzukizunarekin jarduten du, estatutu hauen arabera. Caritasen ordezkaritza juridikoa dagokio artxidiozesian eta Nafarroako Foru Komunitatean.

2. Elizbarrutiko Caritas irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta erabateko autonomia du bere ondasunak eta baliabideak administratzean, bere forma guztietan legeria kanonikoan markatutako aukeren barnean.

4. artikulua- Lege-esparrua

1. Estatutu hauek, CICek eta aplikagarria zaion legeria zibilak eraentzen dute. Bereziki, 1/2002 Lege Organikoak, Elkartzeko Eskubidea Arautzekoak, modu osagarrian, eta bai araudiaren arabera eguneratzen eta garatzen duen beste edozeinek.

2. Halaber, Elizbarrutiko Caritas boluntariotza-erakundea da, Boluntariotzako 45/2015 Legearen eta Nafarroako boluntariotzari buruzko foru-arauaren babesean, eta bai araudiaren arabera eguneratzen edo garatzen duen beste edozeinen arabera. Bere karitate- eta gizarte-ekintzaren esparruan diseinatutako eta kudeatutako boluntariotza-programekin garatzen ditu bere jarduketak.

5. artikulua- Caritasen arreta-zerbitzuak

1. Elizbarrutiko Caritasek bere gizarte-ekintza artxidiozesiaren lurraldean egituratzen du, elizbarrutiko zerbitzuen eta parroketako Caritasen bidez, artzapez-mailetan koordinatuta, eta bikariotzakoetan edo artxidiozesiaren antolaketa-ereduaren arabera.

2. Halaber, Elizbarrutiko Caritas karitate- eta gizarte-ekintzako eliza-erakundeen eta -elkarteen koordinazio-eremuetan egon ahal izango da, pastoraltzako beharren arabera.

6. artikulua- Helbidea

Elizbarrutiko Caritasen helbide soziala Iruñean dago, San Anton kalearen 8an, 1.ean. Helbide sozialean egin nahi den edozein aldaketak artzapezpikuaren baimena eduki beharko du.

7. artikulua- Caritas marka

Caritas marka eta bai bere elementu grafiko guztiak ere (zeinuak, izena, isotipoa eta logotipoa, tipografia eta kolorea) erregistratuta daude. Elizbarrutiko Caritas da elizbarrutiko lurraldean marka horretaz egiten den erabileraren arduraduna eta lurralde horretan arautu ahal duena, Espainiako Caritasen Arau Grafikoen eta Nortasun Korporatiboaren Eskuliburuko jarraibide eta oharpenen arabera.

8. artikulua- Caritas, erakundeen sarea

Elizbarrutiko Caritas Espainiako Caritaseko kidea da, zeina Espainiako lurraldeko Caritas guztien konfederazioa den, eta, hala, Europako Caritasen eta Caritas Internationalisen parte hartzen du.

II. KAPITULUA. XEDEAK

9. artikulua- Jomuga

1. Elizbarrutiko Caritas komunitate kristauaren ekintza antolatua da, eta bere jomuga da Elizaren zeregin ebanjelizatzailea gauzatzea, elizbarrutian karitate- eta gizarte-ekintza sustatuz, orientatuz, gauzatuz eta koordinatuz.

Pobreziako eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsoneri laguntzen eta lagun egiten die Caritasek. Sentsibilizatu egiten du eta egitura bidegabeak salatzen ditu, Ebanjelioaren balioak proposatuz. Parrokietako Caritasak koordinatu, animatu eta lagun egiten die, haien komunitate kristauetan, fedearen, itxaropenaren eta karitatearen adierazpide moduan, gizarte-konpromiso baten animatzaile izan daitezten. Ondasunak partekatzea bultzatzen du eta herrialde babesgabeenak bertakoi-elizak babesten ditu, larrialdi-egoeren aurrean edo nazioarteko lankidetzaproiektuetan, karitate unibertsalaren adierazgarri moduan.

2. Jomuga hau lortzeko printzipioak Ebanjeliotik eta Elizaren misio ebanjelizatzailetik sortzen dira, iragarpenaren, ospakizunaren eta zerbitzuaren bidez, eta bai zerbitzua ematetik ere karitatearen aukeretan miseriakordia gauzatze moduan.

Gizarte-bizitzaren erronkei erantzuteko, Ebanjelioak gizarte-arazoekin duen elkarriketatik jaiotzen dira Elizaren Jakinbide Sozialaren printzipioak. Hauek dira printzipio horiek: giza pertsonaren duintasuna, guztien ongia, subsidiarotasuna eta elkartasuna.

10. artikulua- Eskumenak

Artxidiozesian pobreen aldeko lehentasunezko aukera betetzeko, Elizbarrutiko Caritasak, besteak beste, eskumen hauek ditu:

1. Kalteberatasuneko, pobreziako eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen, beren oinarrizko eskubideak urratuta dituztenei, harrera egitea, laguntzea eta lagun egitea, haien bizi-baldintzak hobetzeko, ahalik eta autonomia handiena lortzeko eta eskubideak gauzatzeko.

Eta xede horrekin, beharrezkoak diren zerbitzuak edo baliabideak antolatzea, gizarte-testuinguruaren arabera: bizitegi-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen integrazioa sustatzea, ostatu duina ahalbidetzeko; migratzaileei harrera eta lagun egitea, gizarteratzea erraztuz; enplegua lortzea erraztea, prestakuntzaren bidez, zentro okupazionalen bidez edo enplegua bilatzearen bidez; etxerik gabeko pertsonen harrera eta lagun egitea. Halaber, ekonomia sozial eta solidarioko ekintzei ekitea. Zerbitzu horietan guztietan, arreta berezia emango zaie emakumeen errealitateari eta beren kontu adingabeak dituzten familien errealitateari, haien kalteberatasun bereziarengatik.

2. Komunitate kristauko kideei eta Nafarroako gizarteari karitate politikoaren esanahiaren eta praxiaren gaineko prestakuntza ematea, justizia eta guztien ongia gauzatzeko ardura eta kontzientzia pertsonala eta komunitarioa sortzeko, hartara, gizarte gizakoiagoa eraikitzea ahalbidetzeko Ebanjelioaren balioetatik.

3. Nafarroako pobreziari eta gizarte-bazterkeriari buruzko azterlanak egitea, eta haien arrazoiak eta ondorioak ezagutaraztea. Konponbideak proposatu, sustatu eta behartzea, pertsonen giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen defentsatik, haien duintasunaren, justizia-eskakizunen eta elkartasunaren arabera.

4. Parrokietako Caritasak (eta/edo sortzen diren pastoraltzako egiturak) animatzea, lagun egitea eta koordinatzea, beren komunitateetan karitate- eta gizarte-alderdiaren animatzaileak izan daitezten eta ondasunak partekatzea susta dezaten, karitatearen eta elkartasunaren bidez ebanjelio-lekukotasuna emanez.

5. Partaidetza eta boluntarioei lagun egitea sustatzea, boluntariotzako erakundea den heinean. Boluntarioak Elizbarrutiko Caritasen eta parrokietako Caritasen zerbitzuetan inplikatzeko lan egitea, beharrezkoak dituzten baliabideez hornituta, bereziki, prestakuntza emanda.

6. Karitatearen alderdi unibertsala gauzatzea, nazioarteko lankidetzarako gizarte-proiektuak eta laguntza humanitarioa behar duten hondamendiak laguntzearen bidez. Laguntza hori hauen bitartez bideratu ahal izango da: Espainiako Caritas, Caritas Internationalis, Elizaren erakundeak edo erlijio-ordenak, eta herrialde haietako tokiko elizak, haien Caritasen bidez.

III. KAPITULUA. ELIZBARRUTIKO CARITASEN LEHENDAKARITZA

11. artikulua- Elizbarrutiko Caritasen lehendakaritza

Caritas elizbarrutiko Elizaren karitatea betetzeko diakonotza izanik, artxidiozesiko artzapezpikuari dagokio lehendakaritza. Artzapezpikua Elizbarrutiko Caritasen karguagatiko lehendakaria da.

12. artikulua- Lehendakariaren eskumenak

Bere zerbitzuaren berezko izaeragatik, eskumen hauek artzapezpikuari dagozkio:

1. Pobreen lehentasunezko aukera eta karitate- eta gizarte-ekintzaren animazioa sustatzea pastoraltza-ekintzaren osotasunean.
2. Elizbarrutiko Caritas eraenduko duten estatutuak eta haien aldaketak onestea.
3. Zuzendaria eta apezpiku-ordezkaria izendatzea eta kargutik kentzea.
4. Ohiz kanpoko administrazioa zaintzea, Zuzenbide Kanonikoaren arabera.
5. Elizbarrutiko Caritasenak diren ondasunak arduraz babestea eta zaintzea, Zuzenbide Kanonikoak ezarritako mugen barnean.
6. Egiturazko edozein aldaketa hitzartzea, hala nola federazio batean sartzea edo hartatik irtetea, bat egitea edo Elizbarrutiko Caritas deuseztatzea.
7. Zuzendariari baimena ematea, administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean ekintza bat hasteko, Elizbarrutiko Caritasen ordezkartzan.
8. Zuzenbide Kanonikoak esleitzen dizkion gainerako ahalmenak betetzea.

IV. KAPITULUA. KIDE ANITZEKO GOBERNU-ORGANOAK

13. artikulua- Kide anitzeko gobernu-organoak

Elizbarrutiko Caritasek kide anitzeko gobernu-organo hauek edukiko ditu:

- Elizbarrutiko Batzarra.
- Elizbarrutiko Kontseilua.
- Gobernu Batzordea.

ELIZBARRUTIKO BATZARRA

14. artikulua- Definizioa

Artzapezpikua buru duela, Caritasen partaidetza sozial goreneko kide anitzeko gobernu-organoa da Elizbarrutiko Batzarra, eta artxidiozesian Caritasen lurralde-maila desberdinetarako gomendioak egiteko, akordioak hartzeko eta eztabaidatzeko biltzen da.

15. artikulua- Osaera

Hitza eta botoa izanda, Elizbarrutiko Batzarraren parte dira ordezkari hauek:

- Artzapezpiku jauna, buru dena.
- Caritasen Elizbarrutiko Kontseiluko kideak.
- Artziprestazgo edo artzapez-barruti bakoitzeko ordezkaria, proportzio honen arabera:
 - 20.000 biztanletik beherako kopurua duten artziprestazgoen ordezkari bat.
 - 20.000 eta 50.000 biztanle arteko kopurua duten artziprestazgoen bi ordezkari.
 - 50.000 biztanletik gorako kopurua duten artziprestazgoen hiru ordezkari.

Halaber, Elizbarrutiko Caritaseko edozein eragilek parte hartu ahal izango du, zuzendariak eskatuta, hitza izanda, baina botorik gabe.

16. artikulua- Elizbarrutiko Batzarreko kideak izendatzea

Beren artziprestazgoek edo artzapezek izendatuko dituzte Caritaseko Elizbarrutiko Batzarreko kideak, lau urteko eperako. Epe hori gehienez ere hiru alditarako luzatu ahal izango da.

17. artikulua- Elizbarrutiko Batzarren eskumenak

Hauek dira Batzarraren eskumenak:

1. Artxidiozesiaren pastoraltzako plana egiteko kontsulta egitea, hala eskatzen bazaio Elizbarrutiko Caritasi.
2. Elizbarrutiko Caritasen ekintza-planaren gidalerroei buruzko kontsulta egitea. Ekintza-plana Gobernu Batzordeak definitzen du eta parroketako Caritasak inplikatzeko ditu.
3. Informazioa ematea berari, eta berak gomendioak ematea erakundearen garapenari eta xedeak betetzeari buruz.
4. Urteko kontuak onestea, ekitaldiko soberakina aplikatzea baita aurreko ekitaldiko jardueren memoria eta Elizbarrutiko Caritasen aurrekontuak hurrengo ekitaldirako.
5. Elizbarrutiko Batzarreko kideen artetik, Elizbarrutiko Kontseiluko kideak hautatzea, estatutu hauetako 22. artikuluari jarraiki.
6. Elizbarrutiko Funtsaren banaketa eraendu behar duten irizpideak onestea, Gobernu Batzordearen proposamenez.
7. Estatutuen aldaketak aurkeztea artzapezpikuari.

18. artikulua- Erregimena eta deia

1. Elizbarrutiko Caritasen Batzarra gutxienez urtean behin bilduko da ohiko eran, eta, ohiz kanpoko eran, artzapezpikuak edo zuzendariak komenigarri jotzen duen guztietan.
 2. Ohiko bilerak aurrez aurre egingo dira, ahal izanez gero. Edonola ere, birtualki ere egin ahal izango dira, barne-arauek ezartzen dituzten baldintzetan eta betebeharretan.
 3. Zuzendariak urtero egingo du bileraren deia eta, ahal bada, aurreneko seihilekoaren barnean egingo du.
- Deialdiak posta arruntaren edo bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko dira, eta kideetako bakoitzari zuzenduko zaizkio. Bilera egiteko aurreikusitako eguna baino hilabete lehenago egingo dira jakinarazpenak gutxienez. Jakinarazpenarekin batera, eguneko aztergaiak bidaliko dira.

Zuzendariak egingo du ohiz kanpoko bilerarako deia. Jorratu beharreko gaiaren urgentziak hala egitea eskatzen duenean, hamabost egun lehenago egin ahal izango da.

19. artikulua- Elizbarrutiko Batzarraren funtzionamendua

1. Batzarra eratutzat joko da, lehen deialdian, botorako eskubidea duten kide egiaztatuen erdiak gehi bat badaude; eta bigarren deialdian, botorako eskubidea duten kideen herenak badaude gutxienez.
2. Lehen eta bigarren deialdiaren artean, gutxienez, hamabost minutu igaroko dira.
3. Elizbarrutiko Kontseiluak zehaztu eta erabakiko ditu bai eguneko aztergaiak bai eta Elizbarrutiko Batzarraren bilera bakoitzeko lan-dinamika ere.
4. Artzapezpikua izango da Elizbarrutiko Batzarraren buru, eta, bera ez badago, zuzendaria. Zuzendariak zuzendu eta moderatuko ditu saioak. Idazkari nagusia arituko da idazkari lanetan.
5. Botorako eskubidea duten kideek, bileran ez daudenean, ordezkaritza Elizbarrutiko Batzarreko beste kide batzuen esku utzi ahal izango dute. Dena den, ezingo dute pilatu eskuordetutako boto bat baino gehiago.
6. Elizbarrutiko Batzarrean egiaztatutako botoen gehiengo osoaren bidez hartuko dira akordioak eta erabakiak. Bi zenbaketaren ondoren botoberdintasunak jarraitzen badu, CICen 119.2 kanonak ezartzen duenarekin bat eginez jarraituko zaio prozedurari.

ELIZBARRUTIKO KONTSEILUA

20. artikulua- Definizioa

Caritasen Elizbarrutiko Kontseilua Elizbarrutiko Caritasen gobernu-organoa da Elizbarrutiko Batzarren artean.

21. artikulua- Osaera

Hitza eta botoa edukiko duten kide hauek osatuko dute:

- Zuzendaria.
- Apezpiku-ordezkaria.
- Idazkari nagusia.

–Lurralde-bikariotzen ordezkariak.

Elizbarrutiko Kontseiluaren bileretara elizbarrutiko zerbitzuetako edozein eragile joan ahal izango da, zuzendariaren eskatuta, hitza izanda, baina botorik ez.

22. artikulua- Elizbarrutiko Kontseiluko kideak izendatzea

1. Elizbarrutiko Batzarreko kideek aukeratuko dituzte Elizbarrutiko Kontseiluko kideak, bakoitzak bere artziprestazgokoak, eta, bikariotzako biztanleriaren gainean, 75.000 biztanleko kopuru bakoitzeko kide bat izango da.

2. Caritaseko Elizbarrutiko Kontseiluko kideak lau urteko eperako izendatuko dira. Epe hori gehienez ere hiru alditarako luzatu ahal izango da.

23. artikulua- Elizbarrutiko Kontseiluaren eskumenak

Hauek dira Elizbarrutiko Kontseiluaren eskumenak:

1. Elizbarrutiko Batzarraren erabakiak eta akordioak zehaztea, aplikatu ahal izateko, eta betetzen direla bermatzea.

2. Elizbarrutiko Batzarraren akordioak eta gomendioak betetzeko beharrezkoak diren lanak garatu eta sustatzea, Caritasek arxidiozesian ahalik eta garapen onena izatea laguntzeko.

3. Elizbarrutiko Batzarraren saiorako eguneko aztergaiak prestatzea.

4. Elizbarrutiko Batzarrak bere esku utzitako beste edozein kudeaketa gauzatzea, estatutu hauen arabera.

24. artikulua- Elizbarrutiko Kontseiluaren erregimena eta deia

1. Gutxienez, urtean bitan bilduko da Caritasen Elizbarrutiko Kontseilua, aurrez aurre edo telematikoki.

2. Zuzendariak egingo du deia. Gutxienez hilabete lehenago egingo da deialdia, idatziz edo bitarteko elektronikoen bidez, eta jorratuko diren eguneko aztergaiak zehaztuko dira.

3. Egoerak hala egitea eskatzen duenean egingo dira ohiz kanpoko bileretarako deiak, eta hamabost egun lehenago egingo dira deialdiak.

25. artikulua- Elizbarrutiko Kontseiluaren funtzionamendua

1. Elizbarrutiko Kontseiluaren bilerak baliozkoak izateko, lehen deialdian beharrezkoa izango da kideen bi heren egotea, eta bigarren deialdian, kideen erdiak.
2. Gobernu Batzordeak zehaztu eta erabakiko ditu bai Elizbarrutiko Kontseiluaren saioen eguneko aztergaiak bai eta bilera bakoitzeko lan-dinamika ere.
3. Lehen eta bigarren deialdiaren artean, gutxienez, hamabost minutu igaroko dira.
4. Zuzendaria izango da Elizbarrutiko Kontseiluaren buru, eta berak zuzendu eta moderatuko ditu saioak. Idazkari nagusia arituko da idazkari lanetan.
5. Elizbarrutiko Kontseiluaren akordioak bertan daudenen botoen gehiengo osoaren bidez hartuko dira. Bi zenbaketaren ondoren boto-berdintasunak jarraitzen badu, CICen 119.2 kanonak ezartzen duenarekin bat eginez jarraituko zaio prozedurari.

Elizbarrutiko Batzarreko eta Elizbarrutiko Kontseiluko kideek kargua uztea

26. artikulua- Kargua uzteko kausak

1. Elizbarrutiko Batzarreko eta Elizbarrutiko Kontseiluko kideek beren karguak utziko dituzte arrazoi hauengatik:
 - a) Izendatu zireneko aldia igaro delako.
 - b) Norberaren eskariaz
 - c) Heriotzagatik edo zerbitzua gauzatzeko ezintasunarengatik.
 - d) Ondoz ondo egindako ohiko bi deialditara ez joateagatik, justifikatu gabeko arrazoirik gabe.
 - e) Bateriaezintasunarengatik, kargu publiko eta politiko bat hartzean edo alderdi politiko batean ardurazko kargu bat hartzean.
 - f) Proposatu zuen estamentuak izendapena atzera botatzeko hartutako erabakiarengatik. Atzera botatze hori arrazoitu egin beharko da.
2. Kargu-uztea gertatu eta gero, arrazoia edozein dela-ere, estamentu berberak ordeztuko dute kide hori eta aurrekoak proposatzeko egin zuten prozedura berberaren bitartez egingo dute.

GOBERNU-BATZORDEA

27. artikulua- Gobernu Batzordea. Definizioa

Elizbarrutiko Caritasen zuzendaritzan laguntzen duen kide anitzeko organoa da Gobernu Batzordea. Caritasen nortasuna, balioak, misioa eta helburuak sustatzen ditu, estrategiak definitzen ditu, eta gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzak bultzatzen ditu.

28. artikulua- Gobernu Batzordeko kideak

Hauek osatzen dute Gobernu Batzordea:

- Zuzendaria.
- Apezpiku-ordezkaria.
- Idazkari nagusia.

29. artikulua- Gobernu Batzordearen eskumenak

Hauek dira Gobernu Batzordearen eskumenak:

1. Elizbarrutiko Caritasen nortasuna eta balioak zaintzea eta sustatzea.
2. Pastoraltzako planaren ezarpena definitzea Caritasen maila desberdinetarako, behin Elizbarrutiko Batzarrari entzunda, eta Elizbarrutiko Caritasen ekintza-plana egitea gidatuko duten gidalerroak hartzea.
3. Elizbarrutiko Batzarrak eta Elizbarrutiko Kontseiluak hartutako akordioak gauzatzea eta betetzea.
4. Zuzendariak politikak eta ekintza-plana betetzearen gainean informazioa ematea, eta bai Caritasen ohiko jardueraren gainean ere, eta, hala, beharrezkotzat jotzen diren doikuntzak hitzartzea.
5. Elizbarrutiko Kontseiluaren bilerak prestatzea, eguneko aztergaiak eta saioaren garapenaren dinamika.
6. Elizbarrutiko Caritasen antolaketa-funtzionamendurako eta bere erakunde-harremanetarako beharrezkoak diren barne-ildoak eta -arauak onartzea.
7. Jokabide-kodea onestea, araudia betetzea zaintzea eta egokiak diren neurri zuzentzaileak ezartzea.

8. Caritasen garapena bultzatzea artxidiezi osoan, parroketako Caritasekin lankidetzan arituz eta haiei lagunduz.

9. Elizbarrutiko Caritasen eta parroketako Caritasen ekintzetan boluntarioen partaidetza eta prestakuntza sustatzea.

10. Elizbarrutiko Funtsaren urteko esleipena eta haren jarraipena egitea, Elizbarrutiko Batzarrak ezarritako irizpideen arabera, eta hari informazioa ematea urteroko bilera bakoitzean.

11. Elizbarrutiko Caritas ordezkatzea erakunde-esparru desberdinetan, komenigarri jotzen denaren arabera.

12. Boluntarioen Ekintza Plana onartzea.

30. artikulua- Gobernu Batzordearen funtzionamendua

Gobernu Batzordea, gutxienez, hilabetean behin bilduko da, eta bere eskumenak ongi garatzeko beharrezkoak diren aldietan elkartu ahal izango da, kideetako edozeinek eskatuta.

Zuzendariak koordinatuko du Batzordearen bilera apezpiku-ordezkariekin eta idazkari nagusiarekin.

Idazkari nagusia arituko da idazkari lanetan, eta hartutako akordioak bilera-agirian jasoko ditu.

Gobernu Batzordearen akordioak aho batez hartuko dira.

31. artikulua- Gobernu-organoetako kideen doakotasuna eta bateraezintasunak

1. Erakundea ordezkatzeko zuzendaritza-karguak eta kontseilariak ez dira ordainduko. Nolanahi ere, ordaintzen diren zuzendaritza-karguak egon ahal izango dira: ordainketa hori erakundeko langile izateagatik jasoko da, kontratatu zireneko lanpostuaren arabera, eta inoiz ez Elizbarrutiko Caritasen daukaten ordezkari-tza-karguarengatik.

Kasu horretan, ezin izango dituzte ordainsariak funts eta dirulaguntza publikoen kontura jaso.

Argitze-eraginetarako, Elizbarrutiko Caritasen beren eginkizunak betetzeagatik ez dute inolako zerbitzu-saririk jasoko ez artzapezpikuak ez eta apezpiku-ordezkariek ere.

2. Elizbarrutiko Caritasen karguen jarduna eta ordainketa, eta bai lotutako edo antzeko erakundeetan, irabazi asmorik gabekoetan, jardutea edo beste edozein zuzendaritza-jarduera betetzea ere, erakunderako kaltegarriak ez izatea zainduko da. Zalantzasako kasuetan, beharrezkoa bada, artzapezpikuaren bereizketara eta erabakira joko da, Gobernu Batzordeari entzun eta gero.

V. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO ZUZENDARITZA-ORGANOAK

ZUZENDARITZA

32. artikulua- Zuzendaria

1. Bere misioa eta helburu sozialak betetzeko Elizbarrutiko Caritasen kudeaketaren arduradun exekutiboa da zuzendaria. Artzapezpikuaren ildoan eta aginduen arabera beteko du bere zeregina, eta erakundearen nortasunaren eta balioen arabera.

2. Artzapezpikuak izendatuko du, lau urteko eperako. Epe hori gehienez ere hiru alditarako luzatu ahal izango da.

3. Elizbarrutiko Caritasen beste kide baten esku utzi ahal izango ditu egokiak diren eginkizunak, justifikatuta dagoen absentzia luzeko edo gaixotasuneko kasuetan, gai jakinetarako, eta berriro karguan hasi arte.

33. artikulua- Zuzendariaren gobernu- eta ordezkaritza-eskumenak

Eskumenen artean hauek daude:

1. Erakundea legez ordezkatzea, erakunde publiko eta pribatu guztien aurrean.

2. Estatutu hauetan jasotako erakunde-helburuak betetzen direla zaintzea, eta bai kide anitzeko gobernu-organoen akordioak betetzen direla ere.

3. Gobernu-organoen bileretarako deia egitea eta haiek zuzentzea: Elizbarrutiko Batzarra, Elizbarrutiko Kontseilua eta Gobernu Batzordea.

4. Elizbarrutiko Caritasen idazkari nagusia eta administratzailea izendatzea, haren kudeaketaren babes moduan, estatutuetako akordioen arabera.

5. Elizbarrutiko Caritasen mende dauden zerbitzuen funtzionamendu ona zaintzea, batasuna eta kohesioa ziurtatuz pertsonen jardunean eta Caritasen proiektuen eta jardueren garapen eraginkorrean artxidiozesian, eta bai haien koherentzia ere erakundearen nortasunarekiko, misioarekiko eta balioekiko.

6. Boluntariora sustatu eta indartzea, eta bai Caritasen parte diren pertsona kontratadunen eta boluntarioen akonpainamendua eta hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra ere, apezpiku-ordezkariekin batera.

7. Urteko kontuak eta aurreko ekitaldiko jardueren memoria egitea, eta bai aurrekontua eta hurrengo ekitaldiari dagokion jarduketa-plana ere, legez ezarritako epeen barnean.

8. Datu pertsonalen tratamenduaren ardura eta erantzukizuna betetzea, haiek babestea zainduta.

9. Elizbarrutiko Caritas ordezkatzea Espainiako Caritasen Batzar Nagusian, apezpiku-ordezkariekin batera, eta harekiko harremanak eduki eta bideratzea.

34. artikulua- Zuzendariaren eskumen exekutiboak

Eskumen exekutiboen artean, haiek daude:

1. Kudeatzaitzaren jarduna eta ekintzak baimentzea, egokia bada.

2. Estatutu hauek beste organo batzuei esleitzen ez dizkieten egintza juridikoak egitea, kontratatzea eta lizitatzea, haien artean herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea.

3. Erakundearen ondasunak eta eskubideak defendatzea bide estrajudizialean eta judizialean, ahalorde orokorrak emanez auzietarako, apezpikuaren lizentzia beharrezko eta egokiak lortu eta gero.

4. Elizbarrutiko Caritasen antolaketa eta organigrama exekutiboa zehaztea une bakoitzean, beharren arabera eta helburuak ahalik eta hobekiena betetzeko.

5. Artxidiozesian, Caritasen zerbitzuetako langile profesionalak kontratatzea eta haiek kargutik kentzea, eta erakundearen mendeko obra sozialetan, egokia bada, eskumen hori kudeatzailearen edo beste pertsona baten esku uzteko aukera izanda.

6. Erakundearen ondasunak administratzea, administratzailearekin batera, Zuzenbide Kanonikoko Kodearen V. liburuko eta legeria zibileko arauen arabera.

7. Administrazio arrunta gauzatzea, barne hartuta gastuak onestea aurrekontuen arabera; ordainketak eta kobrantzak agintzea eta gauzatzea; kontuak ireki eta deuseztatzea eta banku-eragiketak formalizatzea; konpromisoak onartzea eta, Caritasen izenean, dokumentu publikoak edo pribatuak ematea.

8. Elkartzea, bereiztea, partzelatzea, zatitzea, jabetza horizontaleko erregimenari lotuta dagoen obra berriko deklarazioak egitea eta, oro har, erregistroko idazpenak eragin ditzaketen egintzak gauzatzea higiezin sozialetan; inskribatzea, azkentzea edo deuseztatzea eskatzea; mota guztietako dokumentu publikoak edo pribatuak eta mota guztietako agiriak izapidetzea premiatzea.

9. Artzapezpiuak agintzen dizkion beste eginkizun edo erantzukizun batzuk gauzatzea.

35. artikulua- Zuzendariak kargua uztea

Zuzendariak kargua utziko du arrazoi hauengatik:

- Izendatu zeneko aldia amaitu delako.
- Bere erabakia delako, artzapezpiuak onartuta.
- Artzapezpiuak atzera bota duelako bere izendapena.

Zuzendariak kargua uzten badu, haren eginkizunak administratzaileak hartuko ditu bere gain zuzendari berria izendatu bitartean, hiru hilabetetik beherakoa izango den epe batean.

APEZPIKU-ORDEZKARIA

36. artikulua- Apezpiku-ordezkarria

Artzapezpikuak izendatuko du apezpiku-ordezkarria, erakundearen balioak eta nortasuna animatu eta sustatzeko xedearekin, zuzendariarekin batera.

Izendapena lau urteko eperako izango da. Epe hori gehienez ere hiru alditarako luzatu ahal izango da.

37. artikulua- Apezpiku-ordezkariaren eskumenak

Apezpiku-ordezkariaren berezko eskumenak hauek dira:

1. Zuzendariarekin batera, Caritasen nortasun kristaua eta eliz-nortasuna sustatzea eta zaintzea, eta bai haren eduki teologikoak eta pastoraltzakoak ere, kide anitzeko gobernu-organoen laneko eta kudeaketako ildoetan.
2. Karitate- eta gizarte-ekintza artxidiozesiaren pastoraltzaren barnean sartzea bultzatzea.
3. Artxidiozesian karitate- eta gizarte-kontzientzia sortzea eta trebatzea sustatzea, Elizaren Jakinbide Sozialaren esparruan.
4. Zuzendariarekin batera, Elizbarrutiko Caritas ordezkatzeari Espainiako Caritasen Batzar Nagusian.
5. Zuzendariarekin batera, artzapezpikuari artxidiozesian Caritasen kudeaketaren egoera eta garapen orokorraren gaineko informazioa ematea.
6. Artzapezpikuak erabakitzen dituen beste eskumenak, egokia bada.

38. artikulua- Apezpiku-ordezkarriak kargua uztea

Apezpiku-ordezkarriak kargua utziko du arrazoi hauengatik:

- Izendatu zeneko aldia amaitu delako.
- Dimisioa aurkeztu duelako, artzapezpikuak onartuta.
- Artzapezpikuak atzera bota duelako bere izendapena.

IDAZKARITZA NAGUSIA

39. artikulua- Idazkari nagusia

1. Idazkari nagusia dokumentazioa zaindu eta kudeatzearen arduraduna da. Halaber, gobernu-organoen idazkari lanak egingo ditu.
2. Zuzendariak izendatuko du Caritaseko idazkari nagusia, lau urteko eperako. Epe hori gehienez ere hiru alditarako luzatu ahal izango da.

40. artikulua- Idazkari nagusiaren eskumenak

Idazkari nagusiaren eskumenak hauek izango dira:

1. Idazkari lanak egitea Elizbarrutiko Batzarraren, Elizbarrutiko Kontseiluaren eta Gobernu Batzordearen bileretan, eta haietako bilera-agiria egitea.
2. Dokumentazioa kudeatzea eta zaintzea, administrazio-erregistroak eta artxiboak.
3. Erakundeari dagokion edozein alderdi dokumentuen bidez egiaztatzea.
4. Zuzendariak bere esku uzten dituen eginkizunak eta zereginak gauzatzea.

41. artikulua- Idazkari nagusiak kargua uztea

Idazkari nagusiak kargua utziko du arrazoi hauengatik:

- Izendatu zeneko aldia amaitu delako.
- Dimisioa aurkeztu duelako, zuzendariak onartuta.
- Zuzendariak atzera bota duelako bere izendapena.

VI. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA ONDAREA

42. artikulua- Kudeaketa ekonomikoa

1. Bere nortasun juridikoari jarraikiz, Elizbarrutiko Caritas ondasunak eskuratu, atxiki, administratu eta besterentzeko gauza den subjektua da, CICen 1255. artikulua arabera.
2. Elizbarrutiko Caritasen ondasunak Elizaren ondasunak dira, eta CICen V. liburuko eta estatutu hauetako xedapenek eraentzen dituzte. Bere berariazko xedeetarako bideratutako ondare autonomoa da.

3. Elizbarrutiko Caritasen merkataritzako jarduera ekonomikoak gauzatu ahal ditu, Caritasen beraren xedeei erantzuna emango diotenak (bidezko merkataritzako dendak, laneratzeko enpresak, dendak eta hondakinen birziklapena, eta abar).

43. artikulua- Ondarea

Elizbarrutiko Caritasen ondarea hauek osatuko dute:

1. Bere jabetzakoak diren ondasun higigarriak eta higiezinak, edo edozein izaeratakoak.

2. Kostu bidez edo dohainik eskuratzen dituen ondasun guztiak, dirulaguntzetatik, dohaintzetatik, legatuetatik edo fundazioetatik heldu direnak eta, oro har, bere xedeak lortzera bideratzen den edozein diru-sarrera pribatu edo publiko.

3. Ondare egonkorra da bereziki babestutako aktiboen multzoa, erakundearen jasangarritasunerako eta bere xedeak betetzeko oinarri minimoa eratzen duena.

44. artikulua- Baliabideak

1. Elizbarrutiko Caritasen baliabideak hauek dira:

a) Aldian behingo emaileen, noizbehinkakoen eta kolaboratzaileen ekarpenak, pertsona fisikoak edo juridikoak izan.

b) Eguberri Eguneko eta Karitate Eguneko kanpainetako diru-bilketak, eta bai Elizbarrutiko Caritasen helburuetarako egin litezkeen gainerako diru-bilketak, kanpainak, zozketak edo tonbolak.

c) Ondarezko ondasunek eragin ditzaketen errentak.

d) Artzapezpikutzak Elizbarrutiko Caritasen berariazko helburuetarako bideratu ahal dituen kopuruak.

e) Elizaren beste erakunde batzuek eta erakunde zibilek Elizbarrutiko Caritasen berariazko helburuetarako bideratu ahal dituzten kopuruak.

f) Lor ditzakeen dirulaguntza guztiak, publikoak edo pribatuak izan, eta, oro har, bere helburuak lortzeko Elizbarrutiko Caritasera bideratzen den edozein diru-sarrera pribatu edo publiko, baldin eta ez badago Elizaren Jakinbide Sozialarekin eta Caritasen beraren nortasunarekin kontraesanean.

2. Berariazko xede baterako jasotzen diren ekarpenak xede horretarako baino ezin izango dira erabili, xede hori betetzea zaila edo ezinezkoa bada izan ezik. Halako kasuetan, Elizbarrutiko Caritasen Gobernu Batzordeak baliabide horien erabilera edo helmuga adostuko du, eta emaileak zehaztutako xedeen antzekoetarako baliatuko dira.

ONDASUNEN KOMUNIKAZIO KRISTAUAREN ELIZBARRUTIKO FUNTSA

45. artikulua- Ondasunen Komunikazio Kristauaren Elizbarrutiko Funtsa eratzea eta haren helburua

1. Ondasunen Komunikazio Kristauaren Elizbarrutiko Funtsaren (hemendik aurrera, Elizbarrutiko Funtsa) helburua da parroketako Caritasen arteko elkartasunari bidea ematea.
2. Parrokietako Caritasek gauzatutako gizarte-jarduerak finantzatzera bideratuko da.
3. Parrokietako Caritasen zerbitzuetarako funts hori banatzeko irizpideak Elizbarrutiko Batzarrak onetsiko ditu, Gobernu Batzordearen proposamenez.
4. Elizbarrutiko Caritasen baliabide ekonomikoekin hornituko da urtero funts hori. Urteko aurrekontuen barnean aurkeztuko da, Elizbarrutiko Batzarraren aurrean, onar dezan.
5. Funts horren urteko esleipena eta jarraipena Gobernu Batzordeak egingo ditu, Elizbarrutiko Batzarrak ezarritako irizpideen arabera, eta urtero egiten duen batzar nagusian horren berri emango zaio.

ADMINISTRATZAILEA

46. artikulua- Administratzailea

1. Elizbarrutiko Caritaseko administratzailea Elizbarrutiko Caritasen administrazio- eta kontabilitate-kudeaketaren ardura duen pertsona da.
2. Zuzendariak izendatuko du Elizbarrutiko Caritaseko administratzailea, lau urteko eperako. Epe hori gehienez ere hiru alditarako luzatu ahal izango da.

47. artikulua- Administratzailearen eskumenak

1. Jasotzen diren ondasunak eta baliabideak ongi erabiltzea zaintzea, emaitzen helburuak beteta, eta baldin eta ez badaude Elizaren Jakinbide Sozialarekin eta Caritasen beraren nortasunarekin kontraesanean.
2. Erakundearen ondasunak administratzea, zuzendariarekin batera, Zuzenbide Kanonikoko Kodearen V. liburuko eta legeria zibileko arauen arabera.

3. Zuzendariaren oniritzia izanda, ordainketa-aginduak izenpetzea, barne-araudian finkatuta dagoenaren arabera.

4. Kobrantzak egitea; kontuak ireki eta deuseztatzea eta banku-eragiketak formalizatzea; konpromisoak onartzea eta, Caritasen izenean, dokumentu publikoak edo pribatuak ematea, barne-araudian finkatuta dagoenaren arabera.

5. Elizbarrutiko Caritasen ondasunen inbentarioa eguneratzea zaintzea.

6. Elizbarrutiko Caritasen ondasunen jabetza modu zibilean baliozkoak diren moduetan aseguratzea zaintzea (CICen 1284.2.bi kanona).

7. Urteko kontuak eta urteko aurrekontua egitearen arduraduna izatea, onartu ahal izateko.

48. artikulua- Administrazioaileak kargua uztea

–Izendatu zeneko aldia amaitu delako.

–Dimisioa aurkeztu duelako, zuzendariak onartuta.

–Zuzendariak atzera bota duelako bere izendapena.

–Zuzendariak dimisioa aurkeztu duelako edo kargua utzi duelako. Kasu horretan, jardunean geldituko da, zuzendari berria izendatu arte.

ADMINISTRAZIO-ERREGIMENA

49. artikulua- Administrazio arrunteko erregimena

1. Elizbarrutiko Caritas aurrekontu-erregimenean jardungo da. Aurrekontua urtekoa izango da, eta urte naturalarekin bat etorriko da.

2. Aurrekontuaren monitorizazioa eta kontrola ziurtatuko da, benetako gastua planifikatutakoarekin alderatuz eta desbideratzeak identifikatzen lagunduz.

3. Aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitzean, likidatu egingo da eta urteko kontuak eta jardueren memoria aurkeztuko dira, Elizbarrutiko Batzarrak onartzeko eta ondoren kontuak emateko artzapezpikuari.

4. Irabazi asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Planera egokituko da kontabilitatea.

5. Administrazio arrunteko egintzat hartuko dira urteko aurrekontuaren barnean daudenak.

50. artikulua- Ohiz kanpoko administrazioko erregimena

Ohiz kanpoko administrazioko egintzat hartuko dira hauek:

1. Elizbarrutiko Caritasen ondare egonkorrekoak diren ondasunak besterentzea, baldin eta haien balioak arau kanonikoetan ezarritako kopurua edo Apezpiku Konferentziak ezarritakoa gainditzen badu.
2. Elizbarrutiko Caritasen ondare egonkorrekoak izan gabe, CICen 1292. kanonaren eraginetarako Apezpiku Konferentziak ezarritako gutxienerako muga gainditzen duten ondasunak besterentzea.
3. Erakundearen ondarea funtsezko eran aldaraztea ekartzen duten egintzak edo bere egiturarako arrisku nabarmena dakarren ondare-murrizketa ekartzen dutenak berekin.

51. artikulua- Ohiz kanpoko administrazioko egintzak baliozkoak izateko baldintzak

Aurreko artikuluetan adierazi diren ohiz kanpoko administrazioko egintza guztietarako, apezpikuaren idatzizko lizentzia beharko da, baldintza hauek bete eta gero:

1. Espainiako Apezpiku Konferentziak ezarritako gutxienerako eta gehieneko kantitateen artean dagoen zenbatekoa daukaten egintzetarako, elizbarrutiko artzapezpikuaren onarpena beharko da, Gai Ekonomikoen Kontseiluak eta Kontsultarien Kolegioak baimena eman eta gero.
2. Espainiako Apezpiku Konferentziak ezarritako gehieneko kantitatea gainditzen duen zenbatekoa daukaten egintzetarako, gainera, baliozkoak izateko, Vatikanok emandako lizentzia beharko da.

52. artikulua- Inbentarioa

Ondasun higigarrien eta higiezinen, edo beste edozein izaeratako ondasunen, inbentario zehatza egin eta izenpetuko du administratzaileak, egokia den deskribapenarekin eta tasazioarekin, eta ondareak duen edozein aldaketa idatziz jasoko du, CICen 1283. kanonaren arabera.

VII. KAPITULUA. CARITASEN LAGUNTZEN DUTEN PERTSONAK

53. artikulua- Boluntariotza-ekintza

1. Caritas boluntariotza-erakundea da, bere zeregina, nagusiki, boluntarioen bidez garatzen duena. Boluntario horiek, Elizaren karitate- eta gizarte-ekintzaren animatzaile moduan, eta konpromiso arduratsu baten bitartez, beren zerbitzua ematen dute pertsona pobreenen alde.

2. Boluntarioen Ekintza Planaren bidez ezarriko dira boluntarioen profila, eskubideak eta betebeharrak, eta Gobernu Batzordeak onartuko du.

3. Elizbarrutiko Caritasen boluntario aritu ahal izango da pertsona oro, inolako bereizkeriarik gabe, baldin eta erakundearen helburuak eta nortasuna errespetatzen baditu. Boluntario bakoitza hautatzeko eta zereginetara egokitzeko irizpideak aplikatuko ditu Caritasek.

54. artikulua- Elizbarrutiko Caritasen harremana boluntarioekin

1. Bi alderdiek izenpetutako inkorporazio-akordio batean formalizatuko da harremana.

2. Boluntariotza-zerbitzua doakoa denez, bi alderdien arteko harremanak ez du lan-izaerarik izango.

3. Elizbarrutiko Caritasek hezkuntza-ibilbideak sustatuko ditu boluntarioen inkorporazio, akonpainamendu eta prestakuntzarako, haien hazkunde pertsonaleko prozesua, barnekotasuna eta espiritualtasuna lantzea kontuan hartuko dutenak, eta bai Caritasen estiloarekin eta balioekin identifikatzea ere.

4. Laneko arrazoiengatik, betetzen duen postuaren arabera txertatuko da boluntarioa erakundearen egituran.

VIII. KAPITULUA. CARITAS ARTXIDIOZESIAN

55. artikulua- Caritas artxidiozesian: parroketako Caritasak

1. Artxidiozesian Caritasek egiten duen karitate- eta gizarte-ekintza parrokien bidez egituratzen da lurraldean, zehazki, parroketako Caritasen bitartez. Hain zuen, Caritasek artxidiozesian egiten duen ekintzaren oinarrizko muina dira.

2. Beharren arreta eta koordinazio hobe baterako, parrokiako Caritasak artzapez-guneak ezarri ahal izango dituzte, bikarriotzakoak edo beste edozein gune, artxidiozesian ezartzen den antolaketa-ereduarekin bat datozenak.

3. Parrokietako Caritasak ez daukate nortasun juridiko propiorik, baizik eta Elizbarrutiko Caritasen edo parrokiaren parte moduan jokatzeko dute, egokia denaren arabera.

Era berean, artzapez-guneek, bikarriotzakoek edo beste edozein gune, artxidiozesiak ezartzen duen antolaketa-ereduarekin bat datozenek, ez dute nortasun juridiko propiorik, eta parrokiako Caritasari babesa emateko eta haiek indartzeko zerbitzuan arituko dira.

4. Parrokia-komunitate bakoitzak karitate- eta gizarte-alderdia animatuko duen talde bat edukiko du, pobreen aldeko lehentasunezko aukeraren adierazpide moduan, ahal den neurrian.

56. artikulua- Parrokiako Caritasen taldea

Parrokoa, edo berak eskuordetzen duena, izango da parrokiako Caritasen taldearen burua. Antolaketa onena zein den eta kideei eginkizunak izendatzea erabakiko du, testuinguruaren eta une bakoitzeko beharren arabera.

57. artikulua- Parrokiako Caritasen taldearen eskumenak

Parrokiako Caritasen taldearen eskumenak hauek dira:

1. Parrokietako Caritasak Elizbarrutiko Caritasen alderdi kidea dira, parrokiaren esparruan karitate- eta gizarte-ekintza sustatu, gauzatu eta koordinatzeko xedearekin, Elizbarrutiko Caritasen orientazio, printzipio, irizpide eta balioei jarraituta.

2. Parrokietako Caritasak Elizbarrutiko Caritasen oinarritzko helburuen parte dira beren parroki-esparruan:

a) Komunitate kristauko kideei karitate politikoaren esanahiaren eta praxiaren gaineko prestakuntza ematea, justizia eta guztien ongia gauzatzeko arduraren eta kontzientzia pertsonala eta komunitarioa sortzeko, hartara, gizarte humanoagoa eraikitzea ahalbidetzeko Ebanjelioaren balioetatik.

b) Beren oinarrizko eskubideak eta giza eskubideak urratuta dituzten eta kalteberatasuneko, pobreziako eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen harrera egitea, laguntzea eta lagun egitea, harrera eta lagun egiten duen komunitate bat sortuz.

58. artikulua- Parrokietako Caritasen erregimen ekonomikoa

1. Parrokiako Caritasaren ekonomia bera sartuta dagoen parrokiaren parte da, eta kontabilitate-autonomia du.

2. Parrokiako Caritasaren baliabide ekonomikoak hauek dira nagusiki:

a) Bazkideen kuotak, emaileen ekarpenak, herentziak eta legatuak; oro har, parrokiako Caritasera bideratzen den edozein pertsona fisiko edo juridikoren zeinahi ekarpen pribatu.

b) Bere ekintza eta proiektuei eusteko Elizbarrutiko Funtsaren ekarpenak.

Eguberrietako diru-bilketak eta Karitate Eguneako edo dirua biltzeko ezartzen den beste edozein Elizbarrutiko Caritasi eman beharko zaizkio, elizbarrutiko zerbitzuei eusteko eta Elizbarrutiko Funtsa mantentzeko.

IX. KAPITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA ETA ELIZBARRUTIKO CARITAS DEUSEZTATZEA

59. artikulua- Estatutuak aldatzea

1. Artzapezpikuak aldatu ahal izango ditu estatutu hauek, bere ekimenez edo zuzendaritzak proposatuta, behin Elizbarrutiko Batzarrari entzun eta gero.

2. Elizbarrutiko Batzarrak aurkeztutako aldaketak onartu eta berretsiko ditu artzapezpikuak, eta komenigarri jotzen dituenak sartu ahal izango ditu.

60. artikulua- Elizbarrutiko Caritas deuseztatzea

Elizbarrutiko Caritasek, bere izaerarengatik, iraupen mugagabea du. Edonola ere, legeria kanonikoan jasotako kasuetan deuseztatu ahal izango da eta bai artzapezpikuak hala erabakitzen duenean ere, Elizbarrutiko Batzarrari entzun eta gero (Cf. CICen 120. kanona).

61. artikulua- **Ondasunen zertarakoa**

Elizbarrutiko Caritas deuseztatzen bada, artzapezpikuak batzorde likidatzaile bat izendatuko du.

Likidazioaren ondoriozko ondasunak, behin betebeharrak guztiei erantzunda, arxidiozesiaren eskura igaroko dira, eta deuseztatutako erakundeak eman behar ziren erabilera berbera eman beharko die (Cf. CICen 123. kanona).

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. IZENDAPENEN ERREGIMEN IRAGANKORRA

Estatutuen 16., 22., 32., 36. eta 39. artikuluetan sartutako aldaketak, Elizbarrutiko Caritaseko kargu desberdinen gehieneko iraupenari buruzkoak, behin estatutu berriek indarra hartzen dutenean aplikatuko dira. Egun jardunean diren Elizbarrutiko Batzarreko, Elizbarrutiko Kontseiluko eta Gobernu Batzordeko kideek beren agintaldiak beteko dituzte beren izendapenen arabera.